

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Leihoak.**  
Lain.  
Elkar.  
Iraupena: 37'11".  
13 euro.

## Gaztetasunaren eta baikortasunaren korrontea

KRISTINA Aranzabe eta Leire Berasaluze oso gaztetan hasi ziren musika egiten eta hainbat sari lortu zituzten. Gerora, beste hiru musikari gazterekin batera rockera salto egin eta taldea osatu zuten Villabonan. Honako hau bigarren diskoa da, lehena baino baikorragoa eta anitzagoa. Taldearen ezaugarri nagusienetakoa Aranzabe eta Berasaluzeren ahots tinbreek rockarekin lortzen duten kontraste nabarmena da; nolabaiteko indarra eta

melodia garbiak bat eginda. Bada tarte akustikorik, punk-popa, folk elektriko, pop elektronikoa edo jostaria, rock gitarreroa eta baita countrya ere. Eta badago, baita ere, iluntasunaren eta argitasunaren arteko tirabiran, erritmo aldaketekin jolasean dagoen pieza nabarmenik ere. Oraingoan leihoak erabat ireki eta gaztetasuna barreiatu nahi dute lau haizetara.

[www.myspace.com/laintaldea](http://www.myspace.com/laintaldea)

### Leire Berasaluze - Lain

## «Erritmo erraz batek funtzionatzen badu, atzetik doaz 50.000 antzekoa egitera; nortasuna galdu da»

“Kalera irten da gaur mozorrorik gabe, berriro jaio da”. Tratu txarren kontrako kanta baikorra egin duzue.

016 emakumearen indarkeriaren aukako abestiari Lain ukitua eman diogu, gauza negatiboak utzi eta positiboak hartzeko. Tratu txarrak salatzeke gonbitearekin batera, amesgaiztoa amaitzeko eta bide berri bat eraikitzeke esperantzaz.

“Ez beldur izan ni joaten naizenean”, *Azken antzezpena*. Gauzak dauden moduan, musikan luzaroan irauteko asmoa daukazue?

Noski, guretzat musika ezinbesteko bihurtu da eta nahiz eta zinez borrokatu beharko dugun, bertan mantentzen saiatu nahi dugu, hil gabe. Baina inoiz ez da gure helburuetako bat izan hau egiteari esker bizitzea, zaletasuna da.

“Janari azkarra”-ren apologia egiten duzue. Hala kontsumitzen da gaur egun musika ere?

Bai, gaur egun, jaio eta bigarren abestirako hiltzen da musika. Gaur-



Lain taldea. Leire Berasaluze lehena da ezkerretik.

ko musika irratiak, Youtubek edo Spotifyk botatzen digutena da. Erritmo erraz batek funtzionatzen badu, atzetik doaz 50.000 talde antzeko abestiak egitera; nortasun

asko galdu da. Singleek funtzionatzen dute: abesti bat entzun eta jendeak ez du diskoa erosten, jaitsi egiten du.

Estilo eta giro asko lantzen dituzue ahotsarekin kontrastatuta. Zer osagai behar ditu Lainen kantu batek?

Dueto soila izateari utzi nahi genion. Erritmo eta akorde ilunak, ahots argiekin kontrastatzen saiatu gara. Lainen kanta batek beharrezkoa duen osagaia guk eginga izatea da, denon artean landutakoa.

*Leihoak itxi* kantak erritmo eta melodia bereziak eta aldaketak ditu; berezia da.

Egoera pertsonal negatiboek sortu dute hitza. Oinarriari dagokionez, Javi baxu jotzailea jaietatik goizaldean etxera iristean, baxua hartu eta atera zitzaion lehenengo gauza izan zen abestiaren introa.

Gero lokalera ekarri eta di-da batean atera zen. Guretzat esanahi berezia du. ■

